



HAMAR NOBEL SARIDUN ETORRIKO DIRA

Donostia International Physics Centerrek ekimenez beteriko jaialdia egingo du hilaren 27tik urriaren 1era 2



Asteazkena
2010-09-15

VI. URTEA 1463. ZENBAKIA
DONOSTIAKO EGUNKARIA

IRUTXULOKO

hitza

WWW.IRUTXULOKOHITZA.INFO



Realeko Superligako taldea. REALA

EUREI BURUZ ERE HITZ EGINGO DA

FUTBOLA Realeko emakumeek indartsu ekin diote Superligari; «taldeak kalitate hobea du», esan du entrenatzaileak 5

'Dantzaria naiz' obrak estreinatuko du denboraldi berria

ARTE ESZENIKOAK Urria eta abendua bitarteko ikuskizunen sarrerak gaur jarriko dituzte salgai 6

Autobus geltokia eraikitzeko lehiaketa urrian abiatuko dute

HIRIGINTZA 28 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute lanak aurrera eramateko 4

Ugaitz Elizaran eta Urko Aierbe atxilotu ditu Guardia Zibilak

POLITIKA Manifestazioa deitu dute gaurko, 20:00etan, Bulebarretik abiatuta 3

- Euskalduntze eta alfabetatzea
- Titulu homologatuak

æk-n
ikasi euskara
eman izena

www.aek.org 902 36 22 94



- 3. maila konbinatua
- 4. maila online eta aurrez aurre

Euskaltegiak:

AMARA: Ordoñez, 7 / 943-474592, Isabel II, 14 / 943-450203
ANTIGUA: Igeldo pas. (La Sirena etxera) / 943-218088
GROS: Izueta, 3 / 943-127611
INTXAURROND0: Baso Txiki, 29 / 943-289654

Deja vu



» Loretotetik

Felipe Juaristi
Idazlea

Munduaren ibilbideak bere gora-beherak ditu, bere aurre-atzeak, bere ezker-eskuinak, bere jira eta birak. Dena aldatuz doa, baina askotan badirudi dena lehengoaren

berdin dela. Inguruetan gertatzen ari denari begiratu besterik ez dago. Frantzia jito errumaniarrak kanporatzen dituzte, Sarkozyren aginduak medio. Bestelako garaia direla jakinda ere, ezin buruak naziek eragindako irudietatik alde egin: juduak eta ijitoak bagoietan sartzen. Bai, sentimentaltak gara, eta sentimentalismoak, subjektibitatearen zaldian ibiltzen baita trostan, dena areagotzen du. Objektibitateak, bestalde, gauzak diren bezalakoak erakutsi nahi dizkigu. Esaten digu: «Ez du zer ikusirik, ez gara nazien aroan bizi».

Karl Marxek arrazoi zuen zenbait alderditan. Bera ere atzera sarturik geratu da, bere teoriak bezala; baina funtsean, esan bezala, arrazoi zuen. Historia errepikatu egiten da: batzuetan txantxa moduan; besteetan, tragedia moduan. Ijito errumaniarrak kanporatzen dituen Sarkozy ez da, seguru asko, Adolfo Hitlerren enda-

Historia errepikatu egiten da: batzuetan txantxa moduan; besteetan, tragedia moduan

koa; eta erabaki horrek ez du Hitlerren erabakien larritasun maila lortu. Baina antza dute biek. Azken finean, gizaki batenganako mespretxua erakusten dute, eta frogarik gabe epaitzen da bestea, susmo hutsez, aurreiritzi maltzur hutsez.

Historiaren gurpilak, izan ere, jira egiten du, baina ez betiko bide-tik. Lehentxeago marraztutako arrastotik aldentzen da, baina ez gehiegi. Arrasto berriak aurreko-tik gertu egiten du bere lera-bidea, hura ukitu gabe, jakina.

Horregatik datorkigu halako *deja vu* sentipena. Lehen gertatu zena, gaur ere gertatuko balitz be-

zala, edo gertatzeko zorian balego bezala. Ameriketako apaiz batek Coran liburuak erre ditu. Ekintza horrek bestelako ekintzak dakartzkigu oroimenera: Berlineko Unibertsitateko Plazan liburuak pilaka, eta sua gainean, dena kiskaliz, dena suntsituz. Sarkozyk arraza jakin bat zigortu du, ijito errumaniarra. Ameriketako apaizak kultura jakin bat, musulmanena.

Ez dakigu nola atera aurrera, eta atzera begiratzen dugu, zer egin zen jakiteko. Baina gure iragana ez da batere kontsolagarria. Alderantziz dela esango nuke: triste da eta odoltsua.

Donostia International Physics Centerrek jaialdi zientifiko baten bidez ospatuko du bete berri duen hamarkada; hamar Nobel Saridun izango dira.

Pasio ugari jaialdi bakarrean

MAITANE ALDANONDO

Apirila amaieran hamar urte bete zituen Donostia International Physics Centerrek (DIPC). Hamarkada ez da egunero betetzen, eta horregatik, ospakizun egitarau mardula antolatu du Ibaetako campusean egoitza duen erakundeak. Zientzialarien eta herritarren artean maiz gertatu ohiden urruntasuna murrizteko xedez, *Passion for Knowledge-Ezagutzarekiko pasioa* izeneko jaialdia prestatu dute. Hilaren 27tik urriaren 1era luzatuko de egitarauaren berri eman zuten, atzo, DIPCko presidente Pedro Miguel Etxenikek, Aquiriumeko presidente Vicente Zaragueta eta jaialdiaren idazkari orokor Igor Campillok.

Jakintza zientifikoa herritarren eskura jarriko duten ekitaldian, puntako zientzialarietako parte hartuko dute. Nobel Saridunak, esaterako, DIPCak betetako urteak adina izango dira: Aaron Ciechanover (2004), Jean Marie Lehn (1987), Dudley Herschbach (1986), Ricard Ernst (1991), Roald Hoff-

mann (1981) eta Ada Yonath (1990), kimikari dagokionez; eta Theodor Hansch (2005), Frank Wilczek (2004), Clude Choen-Tannoudji (1997) eta Heinrich Rohrer (1986), fisikari dagokionez. Hauekin batera, Roger Langer eta Juan Ignacio Cirac Asturias Printzea saridunak. Guztiek, artea eta kultura munduko izen handiekin batera, beraien diziplinaren ikerketan izandako bizipenak, aurkikuntzak eta aurreikuspenak azalduko dituzte.

Harrobia lantzeko topaketak

Ezagutzaren pasioa hilaren 27an ofizialki hasiko dute, Kursaal Auditorioan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Isabel Celaa eta Etxenike buru izango dituen ekitaldian, Robert Langerrek eta Aaron Ciechanoverrek, hurrenez hurren, *Biomaterial berriak* eta *Gaixotasun guztiak sentatuko al ditugu?* hitzaldia eskainiko dute.

Irekiera ekitaldiaren aurretik, ordea, bestelako ekimenak ere egingo dituzte. Datorren astelehe-



Vicente Zaragueta, Pedro Miguel Etxenike eta Igor Campillo, atzo, m.a.

netik aurrera, *Pasioa Arteagatik* atala osatzen duten *NanoArt 21* eta *Fotzientzia* erakusketak ikusgai izango dira, Bretxan eta Aquiriumen. Azken honetan, *Itsasoagatik pasioa* zikloa burutuko dute, hilaren 24tik 26ra bitartean. Bertan, Charles A. Farwell eta Fernando de la Gandara ozeanografoak entzuteko aukeraz gain, *Iluntasunak itsas deserta* batean eta *Ocean Symphony* dokumentalak ikusi ahal izango dira. Halaber, hilaren

Hiriari irekia bada ere, gazteen artean zientziarekiko grina piztu nahi du ekimenak

30ean, eskola umeek Sylvia Earle eta Ada Yonath zientzialarietako elkartuko dira.

Etxenikek zehaztu zuenez, «jaialdia hiriarri irekia bada ere, bereziki, gazteei zuzendua da. Harrobia landu behar dugu, berezko oinarri zientifikoa ezinbestekoa baita».

Hori lantzeko, Aquiriumeko azain, DBHko eta Batxilergoko ikasleei nahiz irakasleei zuzendutako topaketa bana egingo dute Zientziaren Kutxagunean. Leku horretan bertan, Ciechanover, Langer eta Ernst kimikariak biozientzien alorreko profesionalen elkartuko dira.

Kursaal, zientziaren itsasargi

Hiriko hainbat txokotara zabaldu-

ko bada ere, jaialdiaren gune nagusia Kursaal izango da. Goizetan, zientzialarietako zuzendutako *Workshops* atalaren egoitza izango da. DIPCak azken hamarkadan garatutako ikerketa lerro nagusiak ardatz izango dituzten lau lantegietan parte hartzeko, jada, nazioarteko 400 ikerlarik izena eman dute. Arratsaldeetan, aldiz, herritarrei zabalduko dizkie ateak. *Hitzaldiak* atalean, zorrotasun zientifikoa eta aisialdia uztartuz, ezagutzaren inguruko gogoeta egingo dute adituek, pentsamendu kritikoak sustatzeko ahaleginean. Sarrera doakoa bada ere, jada 800 lagunek egin duten bezala, aldeaz aurretik izena eman behar da www.dipc10.eu webgunean. Hitzaldi bakoitzak 45 minutuko luzera izango du, eta www.dipc.tv webgunean zuzenean jarraitu ahal izango da.

Bestalde, DIPCk bere patroirik batzuk diren erakunde eta enpresak omenduko ditu jaialdiaren barruan. Ekitaldia, udallexean aurrera eramango dute irailaren 27an, 12:00etan.

Egun batzuetan zientziaren gune bilakatuko bada ere, DIPCren neurria argi du Etxenikek: «Garena gara, hasiberriak. Donostia eta Euskal Herria gure mailako zientzia erakunde mapan mantentzea da gure xedea, jarraitortasuna izan eta epe luzera begira, etengabe lan eginez». Jaialdia urriaren lehen amaituko bada ere, zientzialari handiek hirian jarraitu dute. Izan ere, Europako Fisika Elkarteak bertan egingo baitu urteroko bilera.

» PASSION FOR KNOWLEDGE JAIALDIAREN EGITARAUA

Hilak 27

■09:00. Osasun alorreko profesionalen topaketa, Zientziaren Kutxagunean.

■12:00. DIPCaren patroirik pribatuei omenaldia, udallexean

■17:30. Irekiera ekitaldia. Robert Langerrek *Biomaterial berriak* eta Aaron Ciechanover-ek *Gaixotasun guztiak sentatuko al ditugu?* hitzaldia eskainiko dute.

Hilak 28

■10:30. Ikasleekin topaketa Zientziaren Kutxagunean. Partaideak: Roald Hoffman, Frank Wilczek eta Juan Ignacio Cirac.

■17:00-21:00. *Fisica cuantica: Una nueva vision de la naturaleza y mucho mas. De la materia a la vida. ¿Química? ¿Química, Pasión y responsabilidad? La urgencia de explorar la frontera profunda* hitzaldiak emango

dituzte Juan Ignacio Cirac, Jean Marie Lehn, Richard Ernst eta Sylvia Earlerk, Kursaal

Hilak 29

■10:30. Irakasleekin topaketa Zientziaren Kutxagunean, 10:30ean. Partaideak: Dudley Herschbach, Heinrich Rohrer eta Claude Cohen-Tannoudji.

■17:00-21:00. *Domesticando mole-*

culas salvajes. Pasión por la precisión. Anticipando una Edad de Oro eta Un poema a mi amigo Lazkano hitzaldiak, Dudley Herschbach, Theodor Hansch, Frank Wilczek eta Bernardo Atxagaren eskutik, Kursaal.

Hilak 30

■10:30. Ikasleekin topaketa Aquiriumen. Partaideak, Sylvia Earle eta Ada Yonath.

■17:00-20:00. *Tensiones esenciales de la química. Utilizando la luz para manipular átomos eta Pasión por la música* hitzaldiak emango dituzte Roald Hoffman, Claude Cohen-Tannoudji eta Luis de Pablok, Kursaal.

Urriak 1

■17:00. Amaiera ekitaldia, Kursaal. Partaideak: Sir John Pendry, Ada Yonath eta Heinrich Rohrer.